

bidegileak



Pierre Bordazarre *Etxahun-Iruri* (1908-1979)

Egilea:

JEAN LOUIS DAVANT

Irurin laborari

*I*ruri (Troisvilles) udalerriko *Etxahun* jaio zen Pierre Bordazarre, 1908ko maiatzaren 26an. Aita, Gabriel Bordazarre, etxe horretako jabea, Ameriketako Estatu Batuetan zortzi urtez lan egin zuena gaztaroan; ama, Aña Etchebarne, *Barkoxe Etchebarne* baserrikoa, Gaztelondo auzokoa, *Etxahun* «xaharra» bezala. Bi arreba eta anaia bat zituen Pierrak. Bigarren haurra zen, baina lehen mutikoa; beraz aitak premu egin zuen, baserriko lanean goizik laguntzaile baten edukitzeagatik. Hori zen Zuberoako usaia edo ohitura nagusia.



Pierre Bordazarre *Etxahun-Iruri* (1908-1979)

Iruriko eskola publikoan bete zituen Pierrak legezko ikasturteak, seietatik hamahiruetara. Ikasle ona zen, eta lehen mailako ikasketen diploma lortu zuen airez aire, *certificat delako*, gutik ardiesten zutena baserri munduan. Literaturako gaiak zituen maiteenak, bereziki *rédactions* direlakoak, nahiz osoki frantsesez egiten ziren ikasketak. Gero sortetxean lan egingen zuen Pierrak. Irakurtzea maite izango du beti, aitaren etsenplura.



Etxahuneko sutondoa



Etxahun gaztaroan



Etxahun eta emaztea 1934an

Soldaduzka Bordelen egin zuen. Orduan zendu zitzaion aita, nahiko gazterik, septizemia (odol-zornatze) batetik, aitona bezala, eta ber gaitzak eroanen du bera. 1934an ezkondu zen, Santa-Grazi/Urdatxeko *Ütürbürüa* baserriko Felicie Borthiry, dendari-jostuna ere bazenarekin. Ezteietan bertsoak ondu zizkien Louis Ligetx adiskideak.

Munduko bigarren gerla handira deiturik izan ziren 1939an Bordazarre bi anaiak. 1940ko ekainean, Frantziako eta Britainia Handiko lur armada zepoan hartu zuelarik ustekabeen Alemaniakoaren sarekada izugarriak, zortez atera zen Pierra Soissons aldetik, sarean gelditu aldiz anaia, bost urterako Alemaniarantz eroana milioi bat eta erdi lagunekin. Zorigaizto erraldoia poetarentzat ere. Oroitzapen mingarri horretarik ez zen behin ere askatu, ez zuen aipatu nahi ere. Baina zein hunkigarriki abestuko zuen gerla ondoan, *Ama* kantu bihotz erdiragarrian!

Bitartean bi seme izanak zituzten Pierrak eta Feliciek: Allandu eta Mathieu. Allandu (1936), *Etxahuneko* jabea, laboraria, Iruriko auzapez hautatua hiru aldiz (1971-1997), etxean ezkondu eta familiatua, bi seme-alabaren aita. Bigarren semea Mathieu (1938), ezkondua eta familiatua hau ere, eskola publikoan irakasle, baita arduradun izana lehen mailan, gero bigarrenean, Parise aldean; bere laneko azken hiru urteak bete ditu Angeluko Endarra kolegioan, zuzendari karguan, eta hiri horretan dago erretiratua.

Euskal jaien gora

Euskal jaien munduan goizik sartu zen. Hor maisu izan zuen Leon Salaber Ozazekoa: kantari, dantzari, istorio kontalari, soinulari ezteietan bereziki, eta «pastoral errejenta», hots taula zuzendaria. *Etxahuneko* familiaren adiskide handia zen Gabrielen denboratik, eta Pierra gazteari 15 urteetan kargu bat eman zion 1923an, Irurin antzeturiko *Charlemagne* trajerian.

Gaztaroan harmonikaz eta txirulaz ikasi zuen Pierrak, eta horrela hazi bere musikari sena, belarria ezinago zorrotzuz.



Semearekin gerla denboran



Charlemagne pastorean, 1. ilaran, ezker aldetik 5.a

Gero bertsotan hasi zen Louis Ligetx larraintarrarekin. Orduko sonatua zen hau. Zihigako *Baratzabal* etxera ezkondua baitzen, merkatu arratsetan geldialdi bat egiten zuen *Etxahunean*, eta berandu arte *koblakan* ari zen Pierra gaztearekin.

Kantu idazten ere hasi zen Bordazarre munduko bigarren gerla aurrean: 1938 urte ingurukoa da haren abesti hunkigarrienetakoa bat, «Domecq mariñelaren hiltzia». Donibane-Lohizunekoa zen arrantzale hori: beraz ordukotzat Zuberoatik harantz ikusten zuen Etxahunek. Baina gerla ondoan loratuko da gehienik Irurikoaren dohain hori.

Beste dohain miragarria: trajeria hunkigarrien antolatzekoa, lehenik plana zorrozki landuz, oholtza gaineko jokoa eta mugimendua beti gogoan, aldezturik filmatuz bezala: «bertseten» idazteko bezainbat denbora hartu zion, adibidez, *Ximena* trajerian, Allandu semeak erran didan bezala.

Bixkotxaren gaineko gerezia, txirula. Gaztaroan ikasirik, gero ahanztixerik, 1962 edo 1963 urtean berriz lotu behar izan zitzaion Pierra, zerbitzu egiteagatik. Beste hiru txirulari zeuden Zuberoan, adinekoak, eta hiruek betan eri gertatu Atharratzeko «kermeza» edo festa baten unean. Etxahun behartu zuten atharraztarrek. Jaia animatu zuen Pierra



Ahüne mendia (2.504 m.), Biarnoko mugarría

bihoztoiak ahal bezala! Ondoko astean amorru betean txirula jotzeari ekin zion so-roan, trebatzeko. Laster maskaradaz maskarada ibili zen, Pierra Aguer Ga(r)at A(r)hane lagun atabalan: bikote mitikoa Euskal Herri osoan.


Zuberotar anitzek bezala, harreman estuak zituen Maule eta mauletarrekin. Sozialisten kidea zen bereziki, bere ideiak ez zituen gordetzen. Halere estimu handitan zuten zuriak ere, gizon irekia baitzen, maitagarria, alaia, denekin edonon «eijerki» elestatzeko denbora hartzen zuena. Etxean usu jendea, eta beti ongi hartzen berak eta familiak.

Mendia zuen beste poloa, bereziki Maidale-na. Horren maldan bordalde bat badu gainera Etxahunek. Udan artaldea Igeluko «olaltearen» aldamenen du, eta Etxahun Barkoxek abestu zuen horretara itzuli baten egitea maite zuen Bordazarrek, aziendaren eta semearen ikustera igotzeko aukera zuelarik.

Nahiz elizan ez zuen denbora gehiegirik pasatzen, kristaua zen Pierra: Charles Peguy frantses idazleak bezala, otoitz egiten zuen kanpoan eta olerkian, bereziki trajeriako azken kantuan. Otoitz hauxe jartzen du Zantxo Azkarraren ahoan: «Jinko Jauna zük parka izadazü orai artino egin bühürrikeria».

Biografia honen burutzeko, aipagarria da Bordazarrek emaztearen ganik ukan zuen etengabeko laguntza, semea eta errenarena gainera, egunero jan egin behar baitute ardi eta behiek ere. Amari asko zor dio aitaren etxeak!

Euskaltzain urgazlea zen Pierra Bordazarre, ongi merezita, naski, laster ikusiko dugunez.



Etxahun-Iruri pastoralak,
R. Idiartek idatzia,
herriarrek emana 2001ean

Bertsolari bakarra

Edozeini galdetzen badiogu zeintzuk izan ziren Zuberoako bi bertsolari handienak, seguruki dugu erantzuna: Etxahun-Barkoxe eta Etxahun-Iruri! Enetzat ez da hain argi, hor baitaude Beñat Mardo eta Louis Ligetx.

Mardo, XVIII mendeko barkoxtarrak, izugarriko erraztasuna omen zuen bat-bateko bertsoen botatzeko, ereiten zituen aho beteka: Augustin Xahoren arabera, hogeitaz liburutik ez zen osoki sartuko haren ekoizpena. Zoriturrez haren garaian ez zen magnetofonorik, eta gainera idazlan gutxi utzi zuen berak, ahozkoa baitzen hain zuzen.

Idazle zorrotza zen aldiz Pierre Topet, *Etxahun-Barkoxe*. Idazlanak ezinago artoski zizelkatzen zituen, hutsunerik ez soberakinik utzi gabe neurtitzetako silaben artean, familian egon diren paper bakarren arabera, zu-



Etxahun txirulaz, Ga(r)at Arhane atabalaz



Bertsotan Parisko Euskal Etxean

zenketaz beteak baitaude. Baina bat-bateko lehian ari ote zena? Horren frogarik ez dugu. Barkoxeko erretoreari elizako atean kantatu zizkion bertso mingarriak aldeztatik aurretik prestatuak zituela erakutsi du Haritschelhar jaunak, baita «Etxahun eta Otxalde» sorta ezaguna bigarren horrek idatzita aurkeztu zuela 1880an, Mauleko Lore Jokoe-tan: 18 urte hartan zendua zen Etxahun. Barkoxtar idazlearen aho-mihizko dohainen berririk ez dugu momentuko.

Haatik Etxahun-Iruri, bi sailetan ari zela badakigu. Louis Ligetx zuen irakaslea. Biak lehian entzun dituztenen arabera, bat-bateko

bertsogintzan azkarragoa eta zorrotzagoa zen larraintar-zihigarra. Baina egia da zazpi urtez zaharragoa zela Ligetx (1901), ordurako sonatua, Etxahun (1908) aldiz oraino trebatzen ari. Zoritxarrez, adinik hoberenean zendu zen Louis. Idazlan guti utzi du, baina zinez onak eta zorrotzak dira ezagutzen dizkiogunak, hala nola «Boneta eta txapela». Beñat Mardori pentsarazten dit horrez. Biak bertsolari handiak ditugu, Zuberoako bikainenak ene ustez.

Zuberoan lehiakiderik gabe geratu zen goizik Irurikoa. Uste dut bakartasun horrek oztopo egin ziola: bertsolaritzan gailentzeko



Etxahunea, Allandu semea atarian

asko jardun behar da aurkari onei buruz. Xalbador eta Mattin, adibidez, hobetzen ikusi ditut anitz urtez. Halere sari nagusi bat irabazi zuen Bordazarrek 1946an Hazparnen, Xalbador, Zubikoa, Felix Iriarte, Goikoetxea, Mattin eta Meltxor bertsolariekin neurtu ondoren. 1949an ere lehiatu zen Urruñan Basarri, Uztapide, Errexil, Xalbador, Zubikoa, Mattin, Iriarte, Uhalde, Sarasola, Trounday, Caillaba, Xanpun eta Capdeville bertsolariekin. Noizean noiz saioetan parte hartzen zuen Mattin eta Xalbadorrekin. Horien lagun handia izan zen, bereziki urepeldar artzainarena, honek ardura ne-

guan bazkak Zuberoan hartzen baitzituen artaldearentzat. Behin seme bat Altzaira bidali zuen urtaroko, Etxahuni gomendatuz, eta gazteari begia atxiki zion Irurikoak. Etxahunen bertsogintzaz hona zer dioen Xalbadorrek *Odolaren Mintzoa* liburuko 51 orrialdean:

Etxahunekin ere kantatu izan dugu, batez ere Xuberoan ginabiltzalarik. Hau ez da orde —berak aitortzen duena— hainbat trebe bat batean bertset egiten. Baina badi-tu eginak kantu xoragarriak. Musika ere berak egiten badaki, eta hortan bekaizti nitzai, Xuberoako izarra den horri.

Kantu hunkigarriak

Alemaniatik itzuli berriak ziren gerlako presoneren ohoretan, kermeza izeneko jai batzuk antolatu ziren 1946ko udaberrian, herriz herri, eta horietan elkarrekin kantari agertu ziren bi lagun: Etxahun Irurikoa eta Arabarco Mendikotakoa. Zer abestu zuten? Nagusiki Etxahunen kantu berri bat, oso hunkigarria, presoner ohiena: «Ama». Irurikoak laster atera zuen abesti zaparrada bat harrigarria: «Oihanean», «Goizean argi hastean», eta denetatik sonatuena, ekain hartan udako sua



Kantu liburua

pinudian bezain azkar hedatu zena 1946an:
«Agur Xiberoa!»

Sorleküa ützirik gazte nintzalarik
Parisen sartü nintzan korajez beterik
Plazerez gose eta бүрүан hartүrik
Behar nüala alagera bizi,
Bostetan geroztik
Nigar egiten dit
Ziberoa zuri.

Errepika:

Agur Xiberoa
Bazter güzietako xokorik eijerrena!
Agur sorleküa
Zuri ditit ene ametsik goxoenak!
Bihotza(re)n erditik
Bostetan (j)elki deitadazü hasperena
Zü ützig geroztik
Bizi niz tristerik
Abandonatürik
Ez beita herririk
Paris ez besterik
Zü bezalakorik.

Ametsa lagün nezak ni Atharratzera
Ene azken egünen han igaraitera
Orhiko txoriaren kantan behatzera
Parka ditzan nik egin nigarrak,
Oi Xiberotarrak
Aitzinean gora
(E)üskaldün bandera!

Hori bera nahikoa litzateke kantu ontzaile bati
fama handiaren emateko, himno bilakatu baita:
zuberotarrena segurki, baina euskaldun guzio-
na ere «Gernikako Arbola»-ren ondotik. Hitz
hunkigarriei josia, doinu erakargarria, hainbes-
teraino non gerlako erasora daraman martxa



Etxahun eta Arabarco kantariak 1. ilaran



Orhi eta Ahüne arteko hegiak



Arbaila mendi multzoa



Iruriko eliza



Elizabea jauregia

baten antzera kanta daitekeen, azkar eta gogor, eta horrela egiten da maiz. Baina ez zen hori Etxahunen joera, goxo-goxo abesten zuen, nostalgiaz beterik baitago Parisera lan-keta joan den zuberotarraren auhen hori. Esperantza bat dakar halere bukaeran: herrira itzultzekoa, eta gehiago ere, zuberotarron baikor ikustekoa, «Aitzinean gora/ (E)uskaldün bandera!».

Orotara berrehun bat kantu ondu zuen. Segurki ez dira denak maila berekoak, ugari dira gertakari xume baten kariara jendeak eskaturikoak. Baina beti hitz polit batzuk aurkitzen ditu Iruriko erresinhol/urretxin-dorrek, eta oroz gainetik agian, doinua berak asmatzen du, sinplea, goxoa, testuari ongi ezkondua. Horretan maisu da, musikaren irakurtzen ez dakielarik, eta ikaragarriko dohain hori gutiziatzen dio Xalbador adiskideak.

Etxahunen beste ekarpen bat dugu errepika, leloa, euskal kantagintza xaharrean guti agertzen dena, nahiz Etxeparek olerki batzuetan erabili zuen. Irurikoaren ildotik, asko hedatu zaigu. Kantu berriaren sortzaileetatik dugu.

Haatik 1946ko udaberri hartan, Irurikoaren abestiak mirespenez hartu genituelarik haurrek eta gazteek, adinetako jendeak erran zigun: «Etxahun txipia da hau! Bestea zen, Barkoxekoa, Etxahun handia, egiazko Etxahun!». Iritzi horren kontra «Bi Etxahun»

saila idatzi nuen 13 bertsotan 1980an. Hauxe diot bigarreanean eta laugarreanean:

Topet eta Bordazarre

Biak lazgarri despare

Bena biak hain poeta

Etxahun txipirik ez da

Euskaldünen bi alde

Erakutsi deizgüzüe

Bat ülün eta minbera

Beste(a) argi, alagera.

Baina Irurikoak, bere dohain eta lanei esker, argi utzi du laster ez dela Etxahun txikirik. Bi Etxahun, oso desberdinak eta bizkitartean berdin handiak eman ditu Zuberoako lurralde mugatuak. Ez da guti. Horretaz burgoi eta harro gaude.

Frantsesez ere idatzi zuen kantu alairik: 26 kondatzen dizkiot *Etxahun khantari* liburuan. Ezagunena du «Les fêtes de Mauléon», maiz entzun daitekeena. Euskarazkoak nahiago dizkiot, sakonagoak dira niretzat. Iritzi hori zuen berak ere, jolasa zitzaion erdarazkoa.

Euskal kantugintzan lehiakide on bat izan zuen une batez, Alexis Etchecopar-Attuli barkoxtar laboraria, poeta hunkigarria, baina plazaratzeko herabea, goizegi gelditu zena publikoan agertzetik. Agian isilka lan egin duke, baita oraino egiten olerkian.

Euskal Herri osoa

Etzahunen aberria, Euskal Herria da bere osotasunean: «zazpi probintziak». Gauza berria da hemen. Zuberotar zaharrek, eta horrela mintzatzen entzun izan ditut ene haurtzaroan, «üskaldünak» zioten berentzat, eta «manexak» edo «espainolak» beste euskaldunentzat. Ez dira desagertu «manex» eta «espainol» izen horiek, baina guretzat orain «üskaldünak» dira haiek ere. Etzahuni esker badakigu zuberotarrak garela, eta zazpi lurralde historiko dituela Euskal Herri osoak.

Harentzat zer da Euskal Herria? Ama! Argi dago «Ama» deituriko kantuan:

Ez bazüntüdan hain maite, oi ama Eüskal Herria!

[...]

Gu ere, ama, hala güntüzün, tirano haien artean.

[...]

Eüskaldün güziak gütüzü, ama zure zerbüttxari.

Beste kantu baten tituluan agertzen digu ama horren izen politikoa: «Eüskadi». Neurtitz batean ama horrez urrikaltzen da: «Egün oroz gogoan zütü, o gaixo ama Eüskadi». Baina zergatik ote urriki hori? «Ama, gobernuek gütüe gü baztertzen eta nola!».



Belarretan familiarekin

Kantu hori 1977an idatzia da, eta bilakaera baten fruitu bezala ikus dezakegu bere zehaztasunean, Frantzia eta Espainiako Estatuak argi eta garbi akusatzen dituelarik beren gobernuen atzetik.

Neurtitz horien guzien irakaspenak azpimarra ditzagun. Euskal Herria dugu beste ama, «Bi ama baditit» kantuan hitzez hitz erraten duen bezala:

Hanitxen gisa baditit

Bi Ama amiragarri

Enia eta Eüskadi.



Jean Haritschelharren eskutik eta hitzetik



Dantzari gazteekin, bilobaren alboan

Eta «Libro etxean» kantuan, Etxahunen ahoz mintzo zaigu hegoaldeko haurride iheslaria: «Maite beitzüntüdan, Ama Eüskadi, ororen gainetik».

Beraz gaizki doa gure beste ama hori: hiltzera joaki ote, ama xahar bati dagokion bezala? Horrela ikusten du askok hemen, ezin baztertuzko zorte naturalez hilobirako bidean modernitateak eroana. Ondorioz euskararik ez diete irakasten hurrei gurasoek, eta bilobei frantsesez ari zaizkie aiton-amonak.

Haatik ez da zepo horretan sartu Etxahun, etsipenak ez du hartu. Alderantziz, utzikieraren aurka jeiki da, ikurrina eskuan, adibidez «Agur Xiberoa» sonatuan: «Oi xiberotarrak, aitzinean gora (E)üskaldün bandera!».

Eta «Oihanean» delako beste kantore famatuan:

Hots anaie maiteak
Bander(a) esküetan
(E)üskaldünak beigira
Nausi güzietan.

Gazteriari dei egiten dio «Jeik hadi Eüskadi» kantuko errepikan: «Jeik hadi Eüskadi eta mintza hadi ozenki gure gazteriari».

Gazteriaren zati batek entzun du, eta ikurrina harturik, abertzale bilakatu da. Arbasoen naziotasun apolitikotik nazionalismo berrira igaro da. Horrentzat aberria ez da hiltzera doan ama xaharra, emazte gaztea baino, eta haurrak egin dizkio. Batetik bestera, lekukoa luzatu digu Etxahunek.



Maidalena mendia,
Etxahunen kuttuna

Bederatzi trajeria

Bederatzi trajeria edo antzerki idatzi eta eman zituen Etxahunek, 1953tik 1980 bitartean. Horri esker sortu zen Euskal Herri osoan antzerki zahar horrekiko ezagupidea eta miresmena. Hona zerrenda:

1. *Etxahun Koblakari*, 1953an, Barkoxen, lehen aldiko.
2. *Matalaz*, 1955ean, Eskiulan.
3. *Berterretx*, 1958an, Maulen eta Ligin.
4. *Zantxo Azkarra*, 1963an, Gotaine-Iribarnen.
5. *Le Comte de Tréville*, 1966an, Irurin eta Maulen.



1. trajeria (pastorala) 1953an

6. *Chikito de Cambo*, 1967an, Maulen eta Donostian.
7. *Pette Beretter*, 1973an, Gotaine-Iribarnen.
8. *Ximena*, 1979an, Atharratzen eta Irurin.
9. *Iparragirre*, 1980an, Urdiñarben.

Bederatzi süjet, heroi, protagonista horietatik, lau dira zuberotarrak: *Etxahun Koblakari* Pierre Topet-Etxahun Barkoxekoa, *Matalaz*, *Berterretx* eta *Le conte de Tréville* Iruriko jaun-a; hiru hegoaldekoak: *Zantxo Azkarra*, *Pette Beretter* eta *Iparragirre*; bat lapurtarra: *Chiquito de Cambo* edo Kanboko Xikito, Apeztegi pilotaria; eta Gaztelako andere bat: *Ximena*,

Rodrigo Díaz de Vivar, *Cid Campeador* sonatuaren emaztea.

Munduko bigarren gerlaren ondotik, oso nekez berpiztu zen Zuberoako antzerki zaharra, *pastoral* izenez ezagutzen dena, nahiz horren oinarritzko idazkiaren deitura zaharrak diren *trajeria*, holakoaren *istoria* edo halakoaren *bizia*. Gerlaren ondoren lehenbizikoa sei urteren buruan eman zen, 1951n, Garindainen: *Robert Le Diable*, aitzinetik askotan jokatu zen pieza.

Iduri zuen laster bete beharra zela XX mende hasieran Herelle irakasleak iragarri zuena: mundu berrian higituz galduko zela baserriko teatro zahar hori. Luzaz Europaren etsai izigarriak bezala ikusi ziren turkoek ez zuten gehiago inor aztoratzen. Segurki gure aitonek 1915ean eraso zituzten ingelesekin

batera, Dardaneletako itsasartean leihorreatuz, eta guduka hori galduz. Haatik azkenean ezabatu zen otomandar inperioa. Ondorioz pastoralak galtzen zuen beharrezkoa zaion sua, zirrara, emozioa, eta gelditzen bakarrik estetika hotza, kusku huts baten azal polita.

Baina 1953an Barkoxen agertu zen, idazle berri baten lumatik, herriko seme bat ospatzen zuen antzerki berria: *Etxahun Koblakari!* Egun berri bat jaiki zen trajeriaren historian. Antzerki zaharra gaztetu zuen Etxahun-Irurik, espazioan eta denboran hurbileko heroiak hautatuz. Biblia, sainduak eta Frantziako historia pastoralaren historiaurrean utziz, Euskal Herriko gizon handiak ospatzen ditu, eta ber bidetik ibiliko gara horren ondoko idazleok.



Santxo Azkarra, 4. trajeria, 1963an



Le comte de Tréville, 5.a, 1966an



Atharratzen omendua 1977ko uztailaren 24an

Gainera, lehenago sei orduz antzetzten zena laburtzen hasia baitzuten Salaber errejenta bezalako batzuek, mugimendu hori areagotu zuen Etxahun-Irurik, lau orduz behera ekarritz. Gaur hiru ordu ingurukoa du iraupena. Bestalde trajeriako hizkuntza gogor eta handiustea sotildu zuen, eguneroko euskara erabiliz, frantses hitz askorekin, egia da, baina horretan ez du jarraikitzailearik, idazkera jaso eta garbi baten ereduak ekarri baitigu aita Junes Casenave Harigilek.


Euskal kantua ere pastorealean sartu du Etxahunek. Aitzinetik ez zen ematen, salbu

eliza kantika zenbait, latinez gehienetan, egoerak manaturik, hala nola *Te Deum* delakoa, garaipen batez eskerren itzultzeko Jainkoari. Horretan Etxahunen ildotik gabiltza gaur, joritasun gehiagorekin ere. Haatik oroit gaitzen ez dela hau kantaldia, antzerkia baino, eta istorio bat kondatu behar dugula, nahiko testu eta dialogorekin.

Pundu batean idazle zaharren bidetik ibili da Bordazarre: frantsesezko istorio batetik izkiriatu ditu bere trajeriak. Bide hori hautsi du Junes Casenavek, historia ikertuz berak. Horretan santagraztar-urdaxtar handiaren

ikasleak gara gaurko idazleok. Zorroztasunaren etsenplua eman digu honek beste sailetan ere: hiztegian, neurtitzean, grafian eta beste.

Mende laurden batez, trajeria idazle bakarra izan da Etxahun. Gero denbora gutiz lehian gertatu da Junes Casenaverekin, eta lehia horri esker ene ustez, euskara hoberena duen antzerkia du azkena, ikusiko ez duena, *Iparragirre*, 1980an Urdiñarbek antzeztu duena, eta berriz 1989an. Haatik honen ondotik idatzizuen *Ximena*, baina oso denbora gutiz egitera behartu zuten, kantu guziak berak eginez gainera, Urretxuko kantariaren kasuan ez bezala.



Iparragirre, 9.a, 1980an

Herioaren kantari

Etxahunen trajerietan zati baliosena da maiz hiltzera doan herioaren azken kantorea. Ataka horretarik igaro beharko dugu noizbait denok, eta horren sarreran bakoitzak ukaiten ahal duen sentimendua hunkigarriki txaranelatzen du Etxahunek, egiazko poeta dela frogatuz. Hara Treville-ren azken hitzak:

Herio latza hüllantzen ari hiz
Dolürik gabe orai nitarat
Otoitzen hait istant bat ützi nezak
Ene azken adioen egitera.

Hori bera da denen istoria
Herioak bardintzen handi txipiak
Zeren ilüsiñe bat bera da
Lürren gaineko gure pasajea.

Adios arren Mari-Maidalena
Zük ingana nezazü lotarik
Ene ondotik baratzen direnez
Izan ez nadiala ahatzerik.



Pette Beretter,
6.a, 1973an

Fede guti antza denez *türk* horren ezpainetik, besteenganako kezka gutiago. Haatik azkenean Mari-Maidalenari dei egiten dio, ama bati bezala, «ama» oihu eginez hiltzen baitira gudariak, baita naski beste guziak. Gainera ondokoen oroitzapenean bizi nahi da Iruriko jauna.

Tristeia da, etsipenez betea, *Pette Beretter*-en heriotza ere:

Llabür da bizitzea
Lüze da penatzea
Oitean balio düa
Batere sortzea?
Holaz ürrentzeko bizia
Egiaz ez deia tristezia?

Baina lehen bi süjeten eta heroien ahotik ez bezala, *Berterretx*-enean eta *Zantxo Azkarra*-renean agertzen da Jainkoarenganako deia, otoitza. Hara *Berterretx* Jainkoari argi eske:

O zelüko Jinko Jauna
Zuri hertsatzen nüzü
Azken oren izigarri hontan
Argi egin izadazü.

Beste urrats bat egiten du *Zantxo Azkarra* erregeak. Inor ez baitago mundu honetan perfekturik, momentu lazgarri horretan baketzeko, gauzarik beharrena da norbaiti barkamenaren eskatzea: betiereko bizitza eman



Etxahuneko familia

dezakeenari nagusiki. Honela amaitzen du azken kantua:

Jinko Jauna zük parka izadazü
Orai artino egin bühürrikeria.

Are gehiago. Barkamenaren ardiesteko, guhauk urkoari barkatu behar diogu. Bernard Goyheneche *Matalaz* apaiza hiltzera doaz, herritarrekin batera burruka egin due-lako Zuberoaren burujabetzaren eta eskubi-deen alde. Jesukristok bezala barkatu nahi die bere etsaiei. Premiazko lege hori ongi badaki *Matalaz* apaizak, eta betetzen du: «Dener parkatzen düt Jinkoak bezala».

Euskaldunen erregina denez, bere buruaz ahantzirik, euskal erresumaren geroaz arduratzen da Nafarroako Blanca erregina. Bere haurren alde, zeruko amari dei egiten dio,

bereziki Uxuako gain eder hartan dagoenari.
Zinez agertzen da hor ama baten espiritu
babeslea, bihotz maitekor eta maitalea. Hona
Blanca erreginaren heriotza:

Hor da belariko, begiak bustirik
Jinik Birjinaren behartzera
Otoi lagünt dezan kastillanoetarik
Libratzen betiko Nabarra.

Birjina Maria begira gitzazü
Kastillako erregen eskü petik
Gure erresuma hola egon dadin
(E)üskaldün orai eta beti.

Denetatik hunkigarriena da beharbada Rodri-
goren azken kantorea, edonoren heriotza
gogora dakarrelako, beraz gutarik bakoitzare-
na. Azken bi neurtitzetan, Jainko epaile zorro-

tzarekin agertzen da gure arbasoen jansenis-
moa, nahiz Etxahun bera ez zen jansenista:
«Jainkoaren jüstizia, hori zor izigarria». Baina
beste gisaz ulertu daiteke: heriotza bera dela
epai lazgarria. Bizitzaren legea da, ondokoei
lekua utzi behar dugula bizidunek, ongi zahar-
tu ondoren. Haatik Bordazarre aski zahartu
gabe joan zitzaigun maluruski! Hona edonoren
heriotza gogora dakarren azken kantorea:

A! zoinen dolorus zen
Ene destinioa
Mündü hontara jin nintzan
Oitean sofritzer.

Ontsa sofrit(ü) ondoan
Partitü behar da
Oro ütirik beste mündüala
Misterio izigarri hartara
Besterik ezin eginez
Arren gitean kontsola.



Ximena, 8.a, 1979, baina azken idatzia

Etxahunen oroitarria



Orhiko Parnasora

Paueko klinika batean ebakuntza txiki bate-rako sartua, ustekabean itzali zen 1979ko urriaren lehenean, astelehenkari, arratseko bederatziak irian. Eskiulatik Bilbora bihotz asko zaurituz, biharamunean tximista bezala hedatu zen berri tristea.

Urriaren hiruan, asteazkenez egin ziren hiletak. Udazkeneko eguraldi zoragarria zen, Zuberoko erresiñolaren bat-bateko isila zinez azpimarratzen zuena. Arratsalde hartan, askoz ere txikiegi geratu zen Iruriko eliza. Mota guzietako euskaldunen oste handiaren

erditan, hamahiru apaiz bildu ziren, haietan Larzabal eta Lafitte euskaltzainak, Junes zuberotar idazle fin eta oparoa, baita laikoan artean Jean Haritschelhar, Luis Villasante euskaltzainburuaren ordea.

Mezaren artetik, Etxahunen kantu batzuk abestu ziren, bereziki *Le Comte de Tréville* pastoraletik, Iruriko Jaunaren azken kantore hun-kigarria: «Herio latza, hüllantzen ari hiz...».

Beren atxikimendua kantatu zioten hama-zortzi bertsolarik. Eta nik, ehorzketara ezin joanez ikasleengatik, eguerdi hartan idatzi nion haren obraren ikuspegi orokor bat ahal



Etxahunen hilobia eta lauburua

bezain hitz gutiz laburbildu nahi duen *Omenaldi* soneto hau, nire lehena:

Lehen ürzoekin, larrazken hegoan
Airatü zitzaigü, herri honen botza
Hil zeinükan ütüz hanitxen bihotza
Hütsik ürrüpera, goldeak ildoan.

Pastoral(a) emanik oraiko pikoan
Kantü xaharretik berriari hata
Airen asmatzeko ez beitzinen lotsa
Xiberoa hazi düz(ü) (e)üskaldüngoan.

Bihotzez izanez ja(da)nik abertzale
Zük entelagatü gaurko gazteria
Osoan maitatü Zazpiko Herria.

Ürrezko txürülaz batarzün egile
Haurzürtz egin düzü gaixo sorleküa
Eta zure düzü betierek(o) Orhia.

Ehorzketa hunkigarri horiek antolatu zizkion, Allandu seme auzapezaz lagundua, urte askotako adiskidea zuten erretoreak, Rogert Idiart azkaindar apaizak. Honen lumatik, Iruriko eta Zalgize-Donztebeko herritarrek antzetzua, 2001ean *Etxahun-Iruri* pastoralara gozatuko du, barkoxtar homonimoari *Etxahun Koblakaria*, bere lehen trajeria, eskaini zion Pierre Bordazarre poeta maitagarriak. Goian bego lagunekin, Orhiko Parnasoan.



Orhi mendia (2.017 m.), gure Parnasoa

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- *Allandu Bordazarreri*
- *Allandu Bordazarreren emazteari*

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2004ko azaroa
Ale-kopurua:	2.500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Joseba Olalde (g.b.)
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2181-X (Lan osoarena) 84-457-2185-2
L.G.:	BI-2959-04